

AHALDUNTZEKO ZUBI HEZKIDETZAILEAK. HEZKIDETZA- ESPERIENTZIEN ARTEKO ELKARRIZKETA LOKALA- GLOBALA.

ESPARRU DOKUMENTUA



Garapenerako Estrategia Positiboen XIV. Jardunaldiak
eLankidetza. - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia
eta Bilboko Udalaren Berdintasun, Bizikidetza, Lankidetza eta

Immigrazio Saila

Egilea: **Sorginlore Gizarte Elkartea**

AURKIBIDEA

- 03** SARRERA
- 04** ZERGATIK DIOGU INFLEXIO-PUNTU
BATEAN GAUDELA?
MARCO JURIDIKOA
ERRESISTENTZIAK
BERRIKUSPEN KRITIKOA
- 12** HORRETAN OINARRITUTA, ZERI
DEITZEN DIOGU HEZKIDETZA?
- 13** ERRONKAK
- 14** ONDORIOAK
- 15** BIBLIOGRAFIA

SARRERA

Azken urteetan, hezkidetzak gero eta presentzia handiagoa du EAEko eztabaidetan, politiketan eta egitasmoetan. Zergatik? Zertaz ari gara hezkidetzaz hitz egiten dugunean? Berdintasunari dagokionez, zer lekutatik eta ikuspegitatik ematen dira Hego Globaleko hezkuntza prozesuak? Interkonektatutako testuinguru lokal eta global honetan, agerikoak dira askotariko desberdintasunak, gero eta polarizazio handiagoa eta krudeltasuna. Horren aurrean, zer erronka ditu hezkuntzak berdintasuna, justizia, botere indibiduala eta botere kolektiboa sortzeari dagokionez?

Orain arte honela definitu izan da hezkidetzak:

- EAEko II. Hezkidetzak Planaren arabera, nesken eta mutilen arteko berdintasuna modu espezifikoan eta, aldi berean, zeharkako ardatz gisa txertatzen duen hezkuntza.
- Amelia Barquín López, Amaia Alberdi Ruiz de Alegría eta Miren Baranguanen (2021) definizioa erreferentziatzen hartuta, pertsona guztien erabateko garapena eta berdintasuna sustatzen dituen hezkuntza-prozesu integrala da hezkidetzak. Desberdintasunak eta diskriminazio-mekanismoak detektatzen ditu, eraldaketa-tresnak inplementatzen ditu eta aniztasun afektibo sexuala eta generoaren adierazpen askea sustatzen ditu. Gizarte berdinzaleagoa eta aniztasuna errespetatzen duen gizartea eraikitzeke prestatzen ditu ikasleak hezkuntza honek.
- Halaber, Carmen Estela Colazoren (2017) arabera, hezkidetzaren oinarrian dagoen hezkuntzak aintzat hartu behar ditu honako ikuspegiak: genero-aniztasuna, etnia-arraza, klasea, hizkuntza eta sexu-orientazioa. Apustu bat izan behar du, deskolonizazioari eta despatriarkalizazioari lagunduko diena. Horrez gain, desberdintasunei aurre egiteko hezi behar du, gutxiengo gisa tratatzen diren gehiengoetan pentsatu behar du (eta gutxiengoetan ere bai) eta botere-harremanak aldatu behar ditu. Hezkuntza berri honek ez du erdigune bakarra izan behar, berdintasunean oinarritutako erdiguneak baizik, matxismoari, etnizismoari, arrazismoari, klasismoari eta eurozentrismoari aurre egiteko. Modu horretan, beste hezkidetzak bat proposatzen da, konplexuagoa, oinarrian jakintza berriekiko errespetua eraikitzea izango duena, jakintzen arteko hierarkiarik gabe, baina genero-ikuspegi anitzarekin eta berdinzalearekin.

Aipatzekoa da hezkidetzak Estatu espainolean zein EAEn, tradizioz, hezkuntza formalean zentratu dela. Ondorioz, ikastetxeetan garatu da gehien. Pixkanaka, aurrerapausoak ematen ari dira hezkidetzak transbertsalizatzeko, ekintza espezifikoak eta esku-hartze puntualak osatuz, gelako espazioa gaindituz (jolastokia, eskola-kirola...), eta hezkidetzak-plan integralak eta hezkidetzak-arduradunak ezarriz.

EAEn zehazki, Berritzeguneeke sareko lan handia egin dute eta hezkidetzako baliabideak sortu dituzte. Udalerri batzuetan, gainera, hezkidetzak-mahaiak daude. Bestetik, arlo akademikoari dagokionez, hezkidetzari buruzko masterrak eta ikastaroak garatu dituzte EHUen zein Udako Euskal Unibertsitatean (UEUn).

Apustu instituzional horrez gain, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren baitako kolektibo feministek, mugimendu sozialek eta GGKEk egitasmo praktikoak, elkarguneak, hausnartzeko guneak eta hezkuntza formaleko eta ez-formaleko hezitzaileei laguntzeko espazioak jarri dituzte martxan.

Bestalde, Hegoaldean hainbat esperientzia eta prozesu garatzen ari dira haurrekin, nerabeekin eta gazteekin, indarkeria matxistatik bizirik atera diren neskekin eta emakumeekin, genero-disidenteekin, gizonekin edo komunitate osoekin, zeinak beren burua hezkidetzat jotzen ez duten arren, euren helmugetan eta planteamenduetan hezkuntza-izaera bera partekatzen duten. Horrez gain, berdintasunaren helburua ere partekatzen dute, ahalduntzetik eta sexu-genero sistema desmuntatzetik abiatuta.

ZERGATIK DIOGU INFLEXIO-PUNTU BATEAN GAUDELA?

Globalizazioa hegemonikoa da gaur egun, eta honakoak ditu oinarrian: sexu-genero sistema; produkzio-, erreproduzio- eta kontsumo-eredu estruktibista, kapitalista eta inperialista; eta muga fisiko eta sinbolikoak jartzea, pertsonentzat, herrirentzat eta planetarentzat indarkeria estrukturala, sistemikoa eta sistematikoa bihurtzen direnak eta bizitzaren jasangarritasuna ezinezkoa egiten dutenak.

Hala, zapalkuntza-ardatzak normalizatu, inbrikatu eta ohiko forma ugaritan adierazten dira, sektoreak mobilizatu egiten direlako, antolatu egiten direlako, hausnartu egiten dutelako eta esperimendu egiten dutelako, errealitatea, diskurtsoa eta botere alternatiboa sortzeko. Horren aurrean, sexu-genero sistema bistartzeko, aztertzeko, zalantzan jartzeko eta haren oinarriak eta gauzatzea gainditzeko emandako pausoek erreakzio gogorak eragiten dituzte.

Testuinguru horretan, hezkidetzak -eraldatzaila, feminista, antirrazista eta interseksionala- helburu bat da, eta garapenerako estrategia positiboetako bat ere bada, zehazki, ahalduntzetik abiatuta eta berdintasuna lortu ahal izateko. Zentzu horretan, honakoak ikusi ditugu EAEn: a) aldeko esparru juridikoa, b) erresistentziak eta c) planteamenduen berrikuspen kritikoa.

ESPARRU JURIDIKOA

Alde batetik, hezkidetzaren ezartzea ahalbidetzen eta sustatzen du egungo esparru juridikoak.

GJHen 5. helburua "Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahaldundzea" da. 4. helburuko 4.7 helmugak, berriz, honakoa proposatzen du: "2030erako, ikasle guztiek garapen jasagarria sustatzeko behar diren ezagutza teoriko eta praktikoa lor ditzaten bermatzea, besteak beste, honako hauen bidez: garapen iraunkorrerako hezkuntza eta bizimodu iraunkorrak hartzea, giza eskubideak, genero-berdintasuna, bake-kultura eta indarkeriarik eza sustatzea, munduko herritartasuna eta kultura-aniztasuna eta kulturak garapen jasagarriari egiten dion ekarpena baloratzea". Era berean, Agenda 2030 Basque Countryk, 4. eta 5. GJHekin lerrokatzean, kalitatezko hezkidetzaren bultzatzeko oinarriak ehuntzen ditu.

Nazio Batuen Erakundeko Incheoneko Adierazpena eta 2030 Hezkuntzarako Ekintza-Esparrua Hezkuntzarako, Zientziarako eta Kulturarako (UNESCO). Hezkuntzarako ekintza-esparru bat ezartzen du 2015-2030 aldirako, eta bat egiten du Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH), bereziki 4. Helburuarekin (hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa barne hartzen duena). Dokumentu honek honako garrantzia nabarmentzen du, besteak beste: pertsona guztientzako kalitatezko hezkuntza, inklusioa, ekitatea, genero-berdintasuna eta bizitza osorako ikaskuntza.

Europar Batasuna, 2020-2025 Genero Berdintasunerako Estrategiaren bitartez Europar Batasuna bat lortu nahi da non emakumeek, gizonen, nesken eta mutilek -beren dibertsitate osoan- askatasuna izango duten bizitzan aukeratzeko bidea jarraitzeko, aurrera egiteko aukera berberak izateko eta bizi garen Europako gizartea modu berean osatzeko eta zuzentzeko.

Estatu mailan, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko 3/2007 Lege Organikoak honakoa dio 23. artikuluan: "Hezkuntza-sistemak bere helburuen artean izango du ikasleak hezteko, oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatzeko, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzeko." 24. artikuluko 2. atalean honakoa dio: "Hezkuntza-administrazioek, euren eskumenen esparruan, helburu horri begira, hurrengo jarduerak gauzatu dituzte: e) Lankidetzan aritzea gainerako hezkuntza-administrazioekin, hezkuntza-komunitateko pertsonen artean hezkidetzaren printzipioak eta emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorraren printzipioak ezagutaraztera eta hedatzera bideratutako proiektuak eta programak garatzeko".

Agindu horri erantzunez, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena), LOMLOE izenez ezagutzen denak, emakumeen eta gizonen arteko genero-berdintasuna, genero-indarkeriaren prebentzioa eta aniztasun afektibo-sexualarekiko errespetua ezartzen ditu oinarritzko printzipio gisa. Hezkidetzak curriculumaren lerro transbertsala izan behar duela proposatzen du eta, aldi berean, berrikuntza pedagogikoaren eta metodologikoaren ardatzak txertatzen ditu.

Abenduaren 21eko 17/2023 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzkoa. Inklusioaren, berdintasunaren, hezkidetzaren eta kulturartekotasunaren alde egiten duen gizarte kohesionatu batean, bizikidetzaren positiboa ezartzen du eskola desberdin baten ardatz nagusi gisa. Bestetik, maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuak, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak, euskal curriculum beste begirada batetik (kulturartekoa, ekologikoa eta digitalizazioarekin eta hezkidetzarekin lotua) eguneratzeko bidea irekitzen du.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren 3.2. helburu estrategikoa honakoa da: "Herritartasun-eskubideak erabiltzea bultzatzea, hezkidetzaren bidez". Horretarako, 3 helburu operatibo ezartzen ditu:

- Beren kulturen, politikan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txertatzen duten hezkidetzako ikastetxeen kopurua handitzea.
- Bizitzan, ikasketetan eta lanean izango duten ibilbidea aukera-aniztasunetik eta genero-baldintzapenik gabe aukeratzen duten ikasleen kopurua handitzea
- Hezkuntza-sistema egituraz, pertsonaz eta programaz hornitzea, hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredia modu koordinatuan sustatzeko.

EAEko hezkuntza-sistemarako II. Hezkidetzaren Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023) dokumentuak VII. Berdintasun Planaren ezarritakoari erantzuten dio, eta 8 helburu finkatzen ditu:

- Hezkuntzaren arloan lantzen den araudiak berdintasuneko eta hezkidetzako mandatuak beteko dituela bermatzen jarraitzea.
- Emakumeen jakituria eta ekarpen sozial eta historikoa diziplina guztietan txertatzea.
- Irudien eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa egitea, bi sexuen irudi plurala bermatuko duena, genero-rolak eta -estereotipoak alde batera utzita.
- Orientazio akademiko-profesional ez-sexista bermatzea.
- Berdintasuna sartzea ezkutuko curriculumean eta ageriko curriculumean.
- Aniztasunaren molde guztiak txertatzea.
- Baliabideen eta espazioen erabilera bidezkoa sustatzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta tratu ona sustatzea.

Hainbat herrialdeetako adibideak eta praktikak:

▶ 70. Legea, Boliviako Estatu Plurinazionalaren "Avelino Siñani - Elizardo Pérez" Hezkuntza Legea deitua eta 2010ean onartua. Mugarri bat da Boliviako hezkuntzan, herrialdearen hezkuntza-sisteman eraldaketa sakona eta egiturazkoa bilatzen baitu. Lege honek honako ikuspegiak barne hartzen ditu: despatriarkala, deskoloniala, kulturartekoa, eleaniztuna eta partaidetza komunitariokoa. Lege horretatik abiatuta, curriculumean txertatu beharreko hainbat plan eta baliabide garatu dira.

- ▶ Costa Ricako 2011ko Sexualitate Politika Nazionala 2010-2021, Osasun Ministerioak egin zuen, eta, besteak beste, gidalerro orokorrak, beharrezko estrategiak eta ekintzak ezarri zituen, sexu-hezkuntza integrala ezartzeko herrialdeko eskoletan. Azken hori Afektibitateko eta Sexualitate Integralerako Hezkuntza Programaren bidez gauzatu zen
- ▶ Uruguaiako 2008ko 18437. Legea, Hezkuntza Lege Orokorrak ezartzen du sexu-hezkuntza ikasleen prestakuntzaren zeharkako ardatzetako bat dela, hasierako hezkuntzatik hasita irakasleen prestakuntzaraino.

ERRESISTENTZIAK

Hezkidetzaren arloan lortu diren aldaketen aurreko erresistentziak handitu egin dira, eta hori da inflexio-une batean gaudela esatera garamatzen beste elementuetako bat.

Normaltasuna eta, hortaz, matxismo zisheteronormatiboak — kapitalismoarekin eta kolonialismoarekin batera— eraikitako eta finkatutako pribilegioak arriskuan ikusten dituzte, eta badirudi hori dagoela aipatutako erresistentzien oinarrian. Maila lokalean eta globalean, indartu egin dira familia-eredu tradizionalaren defentsarekin lotutako fundamentalismoak: familia-eredu patriarkala, heteronormatiboa, monogamoa, nuklearra, seme-alabekin eta gizonen desirarekin lotutako sexualitatearekin. Genero-berdintasuna (alderdi sinbolikoa eta kulturala) da hizketagai eta eztabaidagai nagusia, sistema ekonomiko eta sozial hegemonikoa mantentzeko giltzarriak diren alderdi ekonomikoak, politikoak eta legalak alde batera utzita (Ayerdi, 2023). Diskurtso politikoek eta erreferentziazko pertsonen (influencer) diskurtsoek legitimatu egiten dituzte berdintasunarekiko eta feminismoarekiko gaitzespen-jarrerak.

Erresistentzia horiek, gainera, gizonek haien maskulinitatea garatzeko orduan duten tentsioa erakusten dute: erasoa, estrategia eta bide gisa; sentitzeko beldurra; maskulinitate mota desberdinak ez onartzea; haien sozializazio-taldeen presioa; arautik aldentzeko beldurra... Izan ere, hori estuki lotuta dago indarkeria(k) jasatearekin. Hortaz, boterea dutenek pertsona eta kolektibo irakurrien aurrean duten beldurraren eta frustrazioaren proiektzioa da, horiek zalantzan jartzen dituztelako sistema hegemonikoaren oinarriak: emakume ahaldunduak, feministak, genero-disidenteak eta pertsona arrazializatuak. Une delikatu honetan, beharrezkoa da maskulinitateak lantzeko estrategiak, jarrerak, diskurtsoak eta metodologiak birpentsatzea.

BERRIKUSPEN KRITIKOA

Azkenik, hezkidetzari buruzko ikuspegia berrikustera eta zabaltzera eraman gaituzte honako hauek: praktiken bizipenetik eta ebaluaziotik sortutako ikaskuntzak; testuinguruko aldaketak; tokiko eta hegoaldeko hainbat eragileren inplikazioari esker planteamendu teoriko, politiko eta metodologiko kritikoak txertatzea; eta errealitate periferikoen arteko aliantzak eta elkarrizketa ahalduntzailea.

Subjektuak: konplexutasuna, intersekzioak, hierarkiak eta aliantzak

Batetik, intersekzionalitateak (Crenshaw, 1989) subjektuen konplexutasuna ulertzen lagundu du, genero-desberdintasunek ez dutela modu isolatuan funtzionatzen aztertzen duelako. Hala, desberdintasun horiek elkarrekin nola gurutzatzen diren eta testuinguruaren arabera kategoria sozialak nola ehuntzen dituzten aztertzen du.

- Aniztasunaren analisi sakona eskatzen du, dinamikoa, erredukzionista ez dena eta kategoria binarioetan antolatuta ez dagoena.
- Emakumeak, gizonak, ez-binarioak, pertsona arrazializatuak, ijitoak, LGBTBI+ pertsonak... talde homogeenak (arazo, nahi eta aukera berdinak eta partzialak dituztenak) diren ustea hausten du.
- Pertsona bakoitzaren subjektibitatea eta lekua pribilegioen eta, aldi berean, zapalkuntzen emaitza izan daitekeela islatzen du.
- Zalantzan jartzen du zer errealitate hartzen dugun erreferentziatza eta/edo normalizatza.
- Botere-harremanak aztertzen laguntzen du.
- Asmo eraldatzailea duten aliantza solidarioak identifikatzen lagundu dezake

Bestetik, egungo botere-harremanak (desberdinak eta sistema ekonomikoarentzat erabilgarriak) gorputzen, subjektibitateen eta herrien hierarkietan oinarritzen direla eta horiek erreproduzitzen dituztela bistaratu eta salatu dute transfeminismoak eta feminismo dekolonialak.

- Matxismoa bezala, zisheteroaraua eta kolonialitatea ere zapalkuntza estrukturalak direla eta gizarte osoari eragiten dietela erakusten dute, honakoei eragiten baitiete: harreman- eta antolaketa-dinamikak; bizi-proiektuen konfigurazioa; sexualitatea, ahotsen, jakintzen eta espiritualitatearen balorazioa; eta erantzukizun indibidualen eta kolektiboaren onarpena.
- Diskurtso eta pedagogia kritikoak eta aldibereko borroak erlazionatzen dituzte. Horretarako, analisi konplexuagoa egiten dute, gorputzak jartzen dituzte, subjektuak berrikusten dituzte eta desberdintasunen sustraiari begiratzen diote, baita arrazen, generoen eta zisheteronormatibitatearen eraikuntzak hegemoniaren, pribilegioaren eta diskriminazioaren legitimazioan duen pisuari ere.
- Potentzial transgresorea handitzen dute eta disidentzia sustatzen dute. Era berean, berdintasuna eta indarkeriarik gabeko bizitzak ahalbidetzen dituzten politikak, estetikak, adierazpenak, gorputzasunak, komunitateak, ekonomiak, komunikazioa eta sexualitateak modu kolektiboan imajinatzeke, arakatzeko, ikasteko eta eraikitzeke irekitasuna sustatzen dute.

Nola eta non gauzatzen da hezkuntza?

Herri-hezkuntzaren arabera, uneoro eta leku guztietan gertatzen da hezkuntza. Oscar Jararen (2021) arabera:

“ Hezkuntza emantzipatzaileak giza potentziala eta giza gaitasunak askatzen dituen praktika gisa pentsatu eta gauzatu nahi du hezkuntza. Hezkuntza pertsonak subjektu eraldatzaile gisa (eta ez objektu gisa) hezten dituen prozesu gisa ulertzean datza. Hezkuntza prozesu integrala eta iraunkorra dela ulertzen du eta, hortaz, eskolaz eta eskola-sistemaz harago doala. Azkenik, prozesu integralen, desberdinen, irekien, kritikoen, parte-hartzaileen, ludikoen eta sormenezkoen arabera pentsatzera eta heztera garamatza. Prozesu horiek hezkuntzan parte hartzen dute, bizitzako eta gizarteko maila eta dimentsio guztietan botere-harremanak demokratizatzeke. (8. or.)

Honakoa ere aipatzen du Jarak (2020):

“ Ez genuke 'hezkuntzaz' modu orokorrean hitz egin behar, uniformea eta unibertsalki homogeneoa balitz bezala. Nire ustez, hobe izango litzateke 'hezkuntza-prozesuez' hitz egitea: ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuak; ezagutzak, gaitasunak, trebetasunak, jarrerak eta balioak eraikitzeke eta berregiteke prozesuak; sozializatzeko, elkar topatzeko, sentsibilizatzeko, deskubritzeko prozesuak; zalantzan jartzeko, bilatzeko eta baieztatzeke prozesuak; nortasunak identifikatzeko eta onartzeko prozesuak... Prozesu desberdinak eta ikuspegi askotakoak; indibidualak, taldekoak, kolektiboak eta masiboak. Prozesu formalak, ez formalak, informalak. Beti testuinguru historiko-sozial batean eta testuinguru teoriko jakin batean gauzatuko diren prozesuak. Azken finean, beti bizitzarekin eta haren gorabeherekin lotutako hezkuntza-prozesuak. (175. or.)

Ana Felicia Torresen (2010) arabera, herri-hezkuntzaren ikuspegi politiko feministak, gainera, honako helburu hauek ditu:



- Botere-harreman patriarkal naturalizatuak bistaratzea.
- Pertsonala politikoa dela zehaztea, alderdi tematikoan zein metodologikoan.
- Uneoro pentsamendu binario dikotomikoari aurre egitea.
- Ezagutza-prozesuetan eta errealitatearen eraldaketa-prozesuetan presente dauden heteronormatibitatea eta heteroerrealitatea bistaratzea eta zalantzan jartzea.
- Subjektibitateak, emozioak, gorputza eta espiritualitateak berreskuratzea, ezagutza sortzeko eta errealitatea eraldatzeko leku gisa.
- Emakumeen arteko harreman politikoak berreraikitzea eta errebeldia pertsonalak eta kolektiboak elikatzea.
- Emakumeen arteko desberdintasunak, arrakalak, asimetriak eta zapalkuntzak ikusaraztea. Maitasunezko eta sororitatezko begirada batetik pedagogizatzea.
- Bizitzako alderdi guztiak pedagogizatzea eta politizatzea; bereziki, alderdi pertsonalak eta harremanekin lotutakoak.
- Arrazionaltasun patriarkalean zentratutako ezagutza erlatibizatzea.
- Emakumeok bizi ditugun askotariko zapalkuntzak bistaratzea eta batak bestea nola indartzen duten bistaratzea.
- Emakumeen jakintzak eta ezagutzak legitimatzea.
- Dauden eta ez dauden emakumeen arteko oihartzunak eragitea.
- Sortzen ari garen praktika berriak izendatzeko kontzeptu berriak sortzea.
- Denbora politikoak, metodologikoak eta pedagogikoak gorputzen eta naturaren denborekin lotzea.



Ildo horretan, pedagogia feministek erraztu nahi dute gutako bakoitzean eta gizarte osoan zisheteropatriarkatua eta haren indarkeriak desmuntatzeko prozesu aktiboa. Horretarako, honakoak behar dira:

- Sexu-genero sisteman eta beste zapalkuntza-matrize hegemoniko batzuetan sozializatzeko gure gorputzetan, esperientzia horien bizipenetan, gure pentsamenduan eta ezartzen ditugun harremanetan uzten dituzten markak identifikatzea eta ikusaraztea. Emakume eta gizon izatearen gainean inposatutako esanahi bakarra (femenino eta maskulino gisa kategorizatuta) arazo bat dela erakustea.
- Araua betetzeko edo ez betetzeagatik izan daitezkeen aurreiritziak, diskriminazioak eta indarkeriak, sotilak zein zuzenekoak, ez errepikatzea, justifikatzea edo onartzea.
- Hezitzaile gisa, ez garela neutroak ohartzea; gure alborapenak, pribilegioak, oztupoak, beldurrak eta nahiak onartzea eta horietaz arduratzea; eta normaltasuna eta araua nola ulertzen ditugun zalantzan jartzea.
- Gure praktikak (hezkuntza arlokoak, sozialak, pertsonalak) pedagogia feministaren eredu izatea, naturalizatu gabeko rola, lidergoak eta narratiba pluralak identifikatuz eta sustatuz; konfiantza, segurtasuna, parte-hartze integrala, entzute aktiboa eta komunikazio ez bortitza oinarrian duten espazioak sortuz; sororitatea sustatuz eta praktikatuz; eta esperientzia lokaletan eta globaletan inspirazioa bilatuz.
- Plazerari esanahi berri bat ematea eta hura aldarrikatzea. Berdintasuna defendatzearen plazera, gustagarria eta motibagarria den zerbaiten gisara, eta ez formala, instituzionala eta nahitaezkoa den zerbait bezala. Bizitza eta bizikidetzaren dinamiko, sortzaile eta osoetan imajinatzearen eta izatearen plazera, zisheteronormatibitatea desmuntatuta. Plazera, jolasetik, gorputzetik, elkartetik eta artetik abiatuta.

Subjektuekin, lekuekin eta moduekin lotutako ekarpen horiek guztiek, ikuspegi lokal-globala dutenek, gure hezkidetzaren praktiken asmo politikoa eta oinarri pedagogikoak berrikustera garamatzate, eta estrategia eraginkorrak, kokatuak eta inpaktu-estrategiak sortzea ahalbidetuko digute

HORRETAN OINARRITUTA, ZERI DEITZEN DIOGU HEZKIDETZA?

Sorginloreren ustez, ikuspegi feminista interseksional batetik berdintasuna aldarrikatzen duen hezkuntza da hezkidetzak, bai hezkuntza formalean —sozializazioaren, prestakuntzaren eta ikaskuntzaren espazio giltzarria—, bai hezkuntza ez-formalean eta hezkuntza informalearen espazioetan. Hezkidetzak, modu horretan ulertuta, honakoak hartzen ditu barne:

- Genero-desberdintasunen ondorioz sortzen diren arrakalak (rolekin, espazioekin, boterearekin, balioarekin eta bizi-proiektuekin lotuta) zalantzan jartzea eta horien gaineko kontzientzia handiagoa izatea, irakurketa kritiko lokal-global batetik abiatuta.
- Jarrera-aldaketa batera iristen laguntzea, askatasun, ahalduntze eta sororitate handiagoa izateko eta, hala, zisheteronormatiboak diren eta naturalizatuta dauden jarrerak gainditzeko.
- Imajinario, narratiba, botere, lidergo, bizi-erabaketa eta elkarbizitza emantzipatzaile, berdinezale, solidario eta indarkeriarik gabekoak sortzeko, barneratzeko, bizitzeko eta hedatzeko parte-hartze aktiboa, indibiduala eta kolektiboa.
- Pedagogia feministetan oinarritzea eta, horiek aztertzean eta praktikara eramatean, interseksionalitatearen, herri-hezkuntza feministaren, kulturartekotasunaren, transfeminismoaren eta feminismo dekolonialaren ekarpenak txertatzea.

Testuinguru bakoitzean erabilitako terminoa edozein izanik ere, ikuspegi honen barruan kokatzen dira hezteko helburua duten eta honakoetan garatutako prozesuak: gatazka-inguruneak, mugakoak, ongizate-estaturik ez dutenak, indarkeria sistematikokoak dituztenak eta/edo berdintasunaren irudipena dutenak; posible da prozesu horiek neska eta emakume bizirauleekin, haurrekin, nerabeekin eta gazteekin, gizonekin edo komunitate osoekin egin izana, baldin eta emantzipatzaileak, sendagarriak, kolektiboak, eraldatzaileak eta sexu-genero sistemarekiko disruptiboak badira.

ERRONKAK

Aurrez aipatu dugun horretan guztian oinarrituta, honako erronka hauek definitu ditugu:

- **Asmo eraldatzaile feminista duten lanketa integralak, transbertsalak, interseksionalak, eta prozesukoak egitea, baliabideekin eta borondate politikoarekin:** denboran iraunkorrak izatea, gaitasunak eta jarrerak finkatuta uztea, data eta ekintzen salbuespenezko izaera gainditzea, eta politikak, egiturak, metodologiak, antolaketa-kultura eta pedagogia eraldatzea.
- **Ikuspegi lokal-global baten alde egitea:** a) gure ikuspegiaren izaera koloniala eta sexu-genero sistema nola adierazten den ulertzen lagunduko diguna, b) hausnarketak, esperientziak eta materialak partekatzen eta horietan inspiratzen utziko diguna, estrategiak eraikitzeko eta aliantza globalak eraikitzeko, eta c) aldatzeko aukeraren gainean dugun itxaropena eta gure energia sortzailea eta transgresorea indartuko dituen
- Teoriaren/formalaren/asmoen eta praktikaren/barneratutakoaren/egituratutakoaren arteko **koherentzia aurrera egitea;** abiapuntu ezberdinak onartuta, esperimendatzen, bizitzen eta hausnartzen ausartuz, eta ezagutza feminista modu kolektiboan eta dinamikoan eraikiz. .
- **Rol hezitzailea indartzea:** boterea eta erantzukizuna ditu rol horrek eta, normalean, sozializazio konbentzionala izan duten pertsonen eta gorputz, ezagutza eta erotika normatiboak dituzten pertsonen hartzen dute rol hori; gainera, askotan, gainkargatuta eta gutxi baloratuta egoten dira. Ezinbestekoa da autogogoeta, baita praktika feminista, interseksional eta ez-helduzentrikorako prestakuntza-espazioak, sareak eta tresnak haien eskura jartzea ere.
- **Aliantzak sustatzea:** aniztasun korporalen eta sexu- eta genero-disidentzien artean (Queer-Crip[1]); gizarte-mugimendu lokalen eta globalen artean; ikastetxeen eta unibertsitatearen artean; unibertsitatearen, mugimendu feministaren eta erakunde sozialen artean; hezkuntza- eta gizarte-erakundeen eta erakunde publikoen artean. Era berean, ikuspegi transfeminista eta antiarrazista duen sareko lana sustatu nahi da.
- **Esku-hartzea** eskolaurreko etapetara, lanbide-heziketara, hezkuntza ez-formalera eta plano komunitariora **zabaltzea eta egokitzea**, hezkidetzeta-inguruneak sortzeko.

[1] Ezgaitasunen eta queer identitateen arteko elkarguneak aintzatesten dituen ikuspegia, baita identitate horiek betetzen dituzten pertsonen ere. Aliantza horiek -Elbarri-Transfeminista izenez ere ezagunak- genero eta gorpuztasun gaietan erresistentzia disidenteko guneak sortzea dute helburu, baita arauari eta aurreikuspeni aurre egitea ere, pertsona guztien inklusioa eta justizia sustatzeko generoaren, sexualitatearen eta gorputz-gaitasunen inguruan.

Aldaketarako erresistentzien aurrean, estrategia kolektiboak eraikitzea:

- Pribilegioetatik abiatuta lan egitea, ikuspegi interseksional eta estrukturalarekin, indarkeria matxistak beste indarkeria batzuekin gurutzatuz, ikuspegi kritiko lokal-globalarekin.
- Gizona, emakumea edo ez-binarioa izatearen gaineko espektroa zabaltzea.
- Gorputz, sexualitate, erotika, harreman afektibo, familia-eredu eta bizikidetzaren desberdinak sortzea eta bistaratzea.
- Espazio seguruak (ikastetxeak, kaleak, etxeak, jaiak, herriak...) eta erreferentzia-taldeak sortzea.

Sexu-heziketa integrala eskaintzea agentzia-gaitasunean eta harreman osasuntsuetan oinarrituta: autoezagutza, plazera, desira, autonomia, interdependentzia eta adostasun-kultura.

Narratiba eta errealitate emantzipatzaileak sortzea, herri-komunikazio feministatik abiatuta: autoekoitzitako produktuen eta kanalen bidez, narratibak eta fantasiak eskuratuz, sortuz eta kontrolatuz; eta ahots eta errealitate isilduak, gutxietsiak eta disidenteak erdigunean jarriz, botere kolektiboa eta erresilientzia komunitarioa sortzeko

ONDORIOAK

Testuinguru aldakor eta desafiatzaile batean, egokia eta koherentea izateko borondateak eta inpaktua sortu nahiak tentsioa sortzen du beti, eta kontzeptuak eta praktikak aldatu egiten dira. Testuingurua, egiturak eta estrategiak modu lokal-globalean aztertuta errealitate ezberdinetan eta leku ezberdinetan jarduten diren pertsonak eta erakundeak elkartzeak eta elkarrekin hitz egiteak ahalduntzea eta ikaskuntza adierazgarriak ekartzen ditu beti.

Gaur egun, sexu-genero sistemak egiturazko ardatza izaten jarraitzen du, beste ardatz batzuekin gurutzatuta, eta horrek desberdintasunak sortzen ditu. Hainbat erataraz adierazten dira desberdintasun horiek egunerokoan, eta pertsona guztien aukerak, jarrerak eta bizitzak baldintzatzen dituzte. Hezkidetzak rol garrantzitsua du sistema hori desmuntatzeari eta oinarri berriak eraikitzeari dagokionez, pedagogia feministetatik abiatuta guztiz feminista izango den hezkuntza baterako eraldaketaren ikuspegitik eta hortik abiatuta berdintasuna sortzeko estrategia gisa. Aliantza, pentsamendu eta metodologia kritikoak txertatzeak haren koherentzia eta potentziala handituko ditu

BIBLIOGRAFIA

Alpha Dia, Abdoul. (2021). La educación emancipadora en África. Ancefa Education For All, Educational Research Network for West And Central Africa, Educo, Campaña Mundial por la educación Lankidetzeta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia,

Asociación Feminista La Cuerda, Asociación de Mujeres Petén - Ixquik y Alianza Política Sector de Mujeres. (2010). Escuela Política Feminista. Módulo 6. Metodología de Educación Popular Feminista. [Archivo PDF]

Ayerdi Olaizola, Assumpta. (2023). Gipuzkoan bizi diren jatorri latinoamerikarreko biztanleek LGBTI+ kolektiboaren inguruan dituzten pertzepzioak. Asociación LGBTI+ Gehitu, ONGD Mugen Gaietik y eLankidetzeta Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo,

Barquín López, Amelia, Alberdi Ruiz de Alegría, Amaia y Baranguan, Miren. (2021). Hezkidetzaprozesuak martxan I: gakoak eta ikaskizunak. Hik hasi: euskal heziketarako aldizkaria, 261, 28-32.

Comisión Europea (2020). Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones. Una Unión de la Igualdad: Estrategia para la Igualdad de Género 2020-2025.

Crenshaw Williams, Kimberlé. (1989). Demarginalizing the Intersection of Race and Sex: A Black Feminist Critique of Antidiscrimination Doctrine, Feminist Theory and Antiracist Politics. *University of Chicago Legal Forum*, 1989(8), 139-167.

Emakunde -- Emakumearen Euskal Erakundea. (2018). (2018). EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana. Eusko Jaurlaritza,

Estela Colazo, Carmen. (2017). Co-educación desde la perspectiva de la diversidad de género. étnico-racial, de clase, lengua y orientación sexual para América Latina: contribución a la descolonización y despatriarcalización de la educación. *Atlánticas. Revista Internacional de Estudios Feministas*, 2, 117-133

Gobierno Vasco. (2017). Agenda Euskadi Basque Country 2030. Contribución Vasca a la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible. [PDF artxiboa]

Hezkuntza Saila (2019). EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzeta Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023. Gobierno Vasco,

Hezkuntza Ministerioa. (2022). Planes y Programas de Educación Secundaria Comunitaria Productiva. La Paz, Bolivia [PDF fitxategia].

Hezkuntza Publikoaren Ministerioa. (2017). Programa de estudios de educación para la afectividad y sexualidad integral. Educación Diversificada, Costa Ricako Errepublika.

Jara Holliday, Óscar. (2020). La Educación Popular Latinoamericana. Historia y claves éticas, políticas y pedagógicas. Ediciones Pluriverso.

Kafer, Alison. (2013). Feminist, Queer, Crip. Indiana University Press

Osasun Ministerioa (2011). Política Nacional de Sexualidad 2010-2021. Costa Ricako Errepublikara.

Parole de queer. (2023ko urria).). Alianzas Queer-Crip y Asistencia Sexual por Mon García.

UNESCO (2016). Incheoneko Adierazpena eta 2030 Hezkuntzarako Ekintza-Esparrua.

3/2020 Lege Organikoa. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. 2020ko abenduak 29.n. 7899 zenbakidun egunkari ofiziala. .

17/2023 Legea. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza. 2023ko abenduak 21. 901 zenbakidun egunkari ofiziala

18437. Legea, Uruguako Ekialdeko Errepublikaren Hezkuntza Lege Orokorra.

70. Legea, Boliviako Estatu Plurinazionalaren "Avelino Siñani - Elizardo Pérez" Hezkuntza Legea. 2010eko abenduaren 20koa.

Referencias complementarias

- Canal Nosotras Movemos el Mundo. (5 de marzo de 2021). Aportes de las pedagogías feministas para la transformación social. [Bideo-artxiboal].
- De Miguel Martínez, Leire, Txueka Uria, Amaia, Martirena Iruretagoiena, Oihan, Fernández Sánchez, Nuria, Etxebarria Etxaburu, Lore, Ayerdi Olaizola, Assumpta y Sagredo Escudero, Mainer. (. (2021eko azaroak 3-5).) I. Hezkidetza eta Pedagogia Feministen Kongresua: Begiradak. Esperientziak. Saretzeak., Calcuta Ondoan e Ikertze Kultur Elkarte, Virtual. [Hitzaldi guztiak].
- eLankidetzaren Lankidetzarako era Elkartasunerako Euskal Agentzia. (2022). Garapenerako Lankidetzaren IV. Luzapena (2022-2024). Eusko Jaurlaritza
- eLankidetzaren Lankidetzarako era Elkartasunerako Euskal Agentzia. (2016). (H)ABIAN Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategia. Eusko Jaurlaritza.
- Galé, María José (s.f.). Interseccionalidad. Construcción de identidades. Culturas. liburutegia CATEDU.
- García Idiakez, Mikel. (2023ko urriak 15. "Dena berdin azaltzen saiatzen gara, gure gorputzak, bizipenak, ezberdinak izanda ere". Argia Astekaria.
- Kanarietako Gobernu eta Espainiako Gobernu. (2020). Colección Rebeldes de Género. Programa de Igualdad y Educación Afectivo-Sexual.

- Hooks, bell. (2021). *Enseñar a transgredir. La educación como práctica de la libertad*. Capitán Swing.
- Iturrioz, Nagore. (13 de marzo de 2019). Hezkidetzatik, pedagogia feministarantz. *Pikara Magazine*.
- JASS Poder Colectivo. (datarik gabe). *Recursos. Compartimos lo que hemos aprendido*.
- Montenegro-González, Catalina, y Corvalán-Navia, Alejandra. (2020). Desplazamientos desde las pedagogías feministas: reflexiones posibles para un ejercicio docente situado. *FEMERIS: Revista Multidisciplinar De Estudios De Género*, 5(3), 8-29.
- Ocampo González, Aldo (coord.), Platero Méndez, Lucas, Pagano Peres Molina, Luana, Fernandes Dinis, Nilson, Carrera-Fernández, Maria Victoria, Cid-Fernández, Xosé Manuel, Lameiras-Fernández, María, Penna Tosso, Melani, Santos, Welson, Sant'Anna, Thiago F., Fernandes Dinis, Nilson, Silva Pamplona, Renata eta Sánchez Sáinz, Mercedes. (2018). *Pedagogías Queer*. Centro de Estudios Latinoamericanos de Educación Inclusiva CELEI Txile.
- Pichardo Galán, J. Ignacio, De Stéfano Barbero, Matias, Puche, Luis, Fumero, Kika, Carrasco, Asier, Cáceres, Ana, Ojea Alonso, Ana, Molina, Ángela, Salguero, Chema, Calzado Molina, David, Benítez Dean, Eduardo, Abril Chaige, Eva, Fuentes Miguel, Jorge, M. Vela, J. Antonio, Pallàs, Katy, Yécora Jimenez, Kepa, Vicente Calle, Lucina, Cancio, Luis, García Sánchez, Luis,... (2020). *Somos diversidad. Actividades para la formación de profesionales de la educación formal y no formal en diversidad sexual, familiar, corporal y de expresión e identidad de género*. Gazteria Institutua.
- Platero, Lucas eta Langarita, Jose Antonio. (2016). La docencia encarnada, sexuada y generalizada. Dos experiencias incómodas. *Pedagogia i Treball Social. Revista de Ciències Socials Aplicades*, 5(1), 57-78
- Quiñones Cuartas, Francisco, Lettieri, Maryanne, Mireles, Manu, Soich, Matias eta Ramella, Juana. (2021eko uztailak 15-17). Primer encuentro federal de educación travesti-trans [Todas las conferencias]. Asociación Civil Mocha Celis, Virtual.
- Sánchez Sáinz, Mercedes. (2019). *Pedagogías Queer ¿Nos arriesgamos a hacer otra educación?*. Catarata.
- Setem Hego Haizea. (2021). Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruan ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa. [PDF artxiboa].
- Silverberg, Cory y Smyth, Fiona. (2019). *Sexo es una palabra divertida*. Bellaterra.
- Silverberg, Cory y Smyth, Fiona. (2022). *Hablemos de sexo*. Bellaterra.
- Sorginlore Gizarte Elkarte eta Ikertze Kultur Elkarte. (2023). II. Hezkidetza eta Pedagogia Feministen Kongresua [Podcast]. Spotify.
- Troncoso Pérez, Leyla Elena, Follegati Montenegro, Luna y Stutzin, Valentina. (2019). Más allá de una educación no sexista. *Pensamiento educativo: revista de investigación educacional latinoamericana*, 56(1), 1-15.
- UNESCO. (2023). *Educación Integral en Sexualidad Costa Rica*.
- 3/2024 Legea Lankidetzarako eta Elkartasunerako. Eusko Legebiltzarra.

KREDITUAK



CC BY-NC-SA 4.0 DEED

Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa

2024 ko otsaila., Donostia



Egilea eta diseinua

Sorginlore Gizarte Elkartea



Ekimena

eLankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia



Bilboko Udalaren Berdintasun, Bizikidetzarako eta Immigrazio Saila